



Parlamento de Navarra
Nafarroako Parlamentua

Servicio de Intervención y
Asuntos Económicos
Kontu-hartzailera eta
Gai Ekonomikoetarako Zerbitzua

ERABILTZAILEAREN GIDA

Azken eguneratzea: 2020ko urtarrila

Nafarroako Parlamentuak egiten dituen kontratuak [Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen](#) arabera izanen dira, ezertan eragotzi gabe Nafarroako Parlamentuak kontratazio-alorrean dituen berezitasunak.

1. Kontratazio-organoak.

1.1. Mahaia da Nafarroako Parlamentuko kontratazio-organoa, eta ahalmena dauka Parlamentuaren izenean eta hura ordezkatzuz kontratuak egiteko, betiere beharrezkoa den aurretiazko aurrekontu-zuzkidura egonda eta, kasua bada, ondorengo fiskalizazioari lotuta.

1.2. Parlamentuko lehendakariari dagokio, Mahaiak horretarako eskuordetu duenean, ondasun arrunt eta zerbitzuen eta material inbentariagarriaren kontratazioa, gastuaren zenbatekoa ez denean 15.000 euro baino gehiagokoa.

2. Kontratazio-mahaia.

Kontratazio-organoari laguntzeko organo profesional espezializatua da.

Osaera hau izanen du: Legebiltzarreko Mahaiaren kide bat, zeinak lehendakaritza izanen baitu, eta gutxienez beste lau kontratazio-mahaikide, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen arteko hautatuak; horietako bi postu kontratuaren xede den alorrean espezializaturiko teknikariek beteko dituzte; beste postu bat Kontu-hartzailearentzat izanen da; eta azkena legegari batek beteko du, zeinak idazkari-zereginetan jardunen baitu. Kontratazio-mahaia eratzea ezinbestekoa izanen da honako hauetarako:

- Balio kalkulatu 60.000 euro baino handiagoa duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak.
- Balio kalkulatu 200.000 euro baino handiagoa duten obra-kontratuak.
- Emakida-kontratuak.

3. Esleipen-prozedurak.

Honako prozedura hauetako edozeini ekin ahalko zaio:

- *Prozedura irekia:*

Interesdun den edozein enpresak edo profesionalak aurkez ditzake bere eskaintzak.

- *Prozedura murriztua:*

Edozein enpresak edo profesionalak eska dezake parte hartzea, baina eskaintza bat aurkezteko gonbidapena jasoko duten bakarrik dira kontratazio-organoak hautatu dituen enpresak edo profesionalak (ez dira bost baino gutxiago izanen).

Salbuespen bezala, legeak ahalbidetzen dituen kasuetan bakarrik eta haien aldeko hautua arrazoituz, zilegi izanen da honako prozedurak erabiltzea:

- *Prozedura negoziatua:*

Erabiliko da adjudikazio botereari ezinezkoa zaionean zehaztea zein diren bitartekorik egokienak kontratuaren xede den premia asetzeko, edo ebaluatzea merkatuak eskain ditzakeen konponbide teknikoak, finantzarioak edo juridikoak.

Kontratazio-organoak izangai hautatuekin **kontsultatu eta negoziatuko ditu** kontratuaren baldintzak. Gutxienez ere hiru izangai hautatuko dira. (Hautaketa-irizpideak aurretiaz finkatuta egonen dira).

- *Lizitazio deialdirik gabeko prozedura negoziatua:*

Prozedura honi kasu hauetan ekin ahalko zaio:

* Prozedura ireki edo murriztu batean, ez denean parte hartzeko inolako eskabiderik aurkeztu edo ezin eskaintza ez denean egokia.

*c) Kontratua enpresa edo profesional jakin batek soilik exekutatu ahal duenean, arrazoi tekniko edo artistikoengatik edo eskusibotasun-eskubideen babesarekin zerikusia duten arrazoiengatik.

* Obra berriak errepikatze eta antzeko zerbitzuetarako.

* Mutur-muturreko urgentziatzko arrazoiengatik.

Gonbidapenean zehaztuta agertuko dira negoziazio-alderdi eta -irizpideak, haien haztapena, nola gauzatuko den eta konfidentzialtasun-arauak.



- *Prozedura sinplifikatua:*

- Balio kalkulatua 60.000 euro baino txikiagoa duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak.
- Balio kalkulatua 200.000 euro baino txikiagoa duten obra-kontratuak.

Kontratazio-organoak enpresa edo profesionali eskaintza egin dezaten eskatzen die, pleguarekin batera, eta arrazoituki esleitzen du. Ahal den guztietan, gutxienez 5 enpresa edo profesionali eskatuko zaie eskaintza egin dezaten.

-*Zenbateko txikiko kontratuen araubide berezia:*

- Balio kalkulatua 15.000 euro baino handiagoa ez duten zerbitzu- eta hornidura-kontratuak.
- Balio kalkulatua 40.000 euro baino handiagoa ez duten obra-kontratuak.

Kontratua izapidetzeko, kasuko faktura besterik ez da behar izanen.

4. Kontratazio-espedientea.

Kontratu ororen aurretik kontratazio-espediente bat izapidetuko da.

Kontratazio guztietan, espedienteak honako hauek bilduko ditu:

- Kudeatze-unitatearen txosten arrazoitua, zeinetan justifikatuko baitu kontratuaren xede diren prestazioen beharra edo komenigarritasuna helburu publikoak asetzaren ikuspegitik.

Aukeratutako prozedura zein den, espedienteak honako dokumentazioa bilduko du, aurreko puntuan adierazitakoaz gain:

→ Zenbateko txikiko araubide bereziko kontratuen kasuan:

- Kreditu-erreserba.

→ Prozedura sinplifikatua:

- Kreditu-erreserba.
- Kontu-hartzailtzak eginiko fiskalizazioa.
- Plegu arau-emailea (bertan ezartzen dira esleipen-irizpidea eta eskaintzak aurkezteko epea).
- Txosten edo oniritzi juridikoa.

→ Prozedura irekia, prozedura murriztua eta prozedura negoziatua:

- Kreditu-erreserba.
- Kontu-hartzailtzak eginiko fiskalizazioa.
- Kontratazioaren plegu arau-emaileak.
- Txosten juridikoa.
- Kontratazio-organoaren ebazpena, zeinaren bidez espedientea onesten, esleipen-prozedura ireki dadin xedatzen eta gastua baimentzen baita. (Lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatuan izan ezik).



5. Lizitazio elektronikoa.

Lizitazio guztiak, salbu eta zenbateko txikiko kontratuetarako araubide bereziko prozeduraren bitartez izapideturiko kontratuak eta [2/2018 Foru Legearen 75.1.c](#)) artikuluan jasotako kasuak, Nafarroako Lizitazio Elektronikoaren Plataformaren bitartez kudeatuko dira ([NALEP](#)). Hori erabiltzea nahitaezkoa izanen da 2018ko urriaren 18tik aurrera.

6. Lizitazioen publizitatea.

6.1 Balio kalkulatu Europako gutxienekoaren bera edo handiagoa duten kontratuak. Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean iragarri bat argitaratu beharko da.

6.2 Nafarroako Kontratazioaren Atarian iragarriko dira abian dauden lizitazio guztiak, salbu eta lizitazio-deialdirik gabeko prozedura negoziatuak, prozedura sinplifikatuak eta zenbateko txikiko kontratuetarako araubide bereziko prozedurak.

Balio kalkulatu Europako gutxienekoa baino handiagoa duten kontratazioen kasuan, halaber argitaratuko da iragarkia Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialera bidali izana.

6.3 Nafarroako Kontratazioaren Atariak informazioa emanen du aurreikusitako lizitazio guztiei buruz.

7. Esleipenen publizitatea.

7.1 Kontratu-esleipen guztiak Nafarroako Kontratazioaren Atarian iragarriko dira. Zenbateko txikiko kontratuetarako araubide bereziko prozeduren kasuan, hiru hilean behin egingen da, enpresa edo profesional bakoitzaren guztiak taldekatuta.

7.2 Europar Batasuneko gutxienekoaren bera edo handiagoa den balio kalkulatu duten kontratuen esleipenak Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko dira.

7.3 Honako hauek ere Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratuko dira:

- Kontratu luzatuak.
- Kontratu suntsiaraziak.
- Kontratu amaituak.
- Ohiko galderei buruzko informazioa eta kontratuen edukia argitzeko azalpenak.
- Urteroko estatistikak, prozedura bakoitzaren bidez esleituriko kontratuek egiten duten aurrekontu-portzentajea zehaztuko dutenak.

Europako gutxienekoak¹:

- Hornidura- eta zerbitzu-kontratuak, haren balio kalkulatu 214.000 eurokoa edo handiagoa denean.
- Obra-kontratuak, haien balio kalkulatu 5.350.000 eurokoa edo handiagoa denean.

¹ 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera



8. Erreklamazioak.

8.1 Kontratazio publikoaren arloko erreklamazio berezia.

Posible da kontratazio-pleguak, izapide-egintzak edo behin betiko egintzak aurkaratzea haien ondorioz lizitazioetik kanporaturik gertatzen direnean edo norbere aukerei kalte egiten dietenean, bai eta esleipen-egintzak eta kontratu baten aldaketa ere, horretarako **erreklamazio berezia** aurkeztuz Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiari.

Erreklamazioak oinarrituta beharko du egon, soil-soilik, [2/2018 Foru Legeko 124.3 artikulua](#) adierazten dituen kasuetan.

Erreklamazioa modu telematikoan aurkeztuko da soilik, Nafarroako Kontratazioaren Atarian aurreikusitako aplikazioaren bidez, eta doakoa izanen da kasu guztietan.

Kontratu baten izapidetze-egintzak nahiz esleipena aurkaratzeak berarekin ekarriko du egintza aurkaratua automatikoki etenda gelditzea, harik eta aurkeztutako erreklamazioaz Nafarroako Kontratu Publikoen Administrazio Auzitegiak erabakia hartu arte.

Erreklamazioari buruzko ebazpena hogei egun balioduneko epean emanen da, hura aurkezten denetik hasita. Epe hori iragan eta ebazpenik jakinarazi ez bada:

- Interesdunak zilegi izanen du erreklamazio berezia ezetsizat jotzea, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteari dagokionez.
- Kontratatzaile den entitateak zilegi izanen du erreklamazio berezia ezetsizat jotzea, espediente-izapidetzearekin eta, kasua bada, kontratu-exekuzioarekin jarraitzeari dagokionez.

Erreklamazio berezia aukerakoa eta ordezkoa da, eta eragozten du arrazoi berean oinarritutako beste edozein errekurtso administratibo aldi berean aurkeztea, horrek galarazi gabe beste arrazoi batzuetan oinarritutako beste zenbanahi erreklamazio edo errekurtso aurkeztea beste organo batzuetan.

8.2 Administrazio-errekurtsoak aurkeztea.

Kontratazio publikoaren alorrean emandako egintzak administrazio-bidetik [Administrazio Prozedurari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeak](#) ezarritakoari jarraikiz aurkaratzeko boterea.

Halaber, zilegi izanen da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea Nafarroako Justizia Auzitegiaren arlo bereko Aretoari, administrazio-bideari amaiera emanik [2/2018 Foru Legearen 35.1 artikuluan](#) aipaturiko aferetakoren bati buruzkoak diren erabakien aurka.



9. Nafarroako Parlamentuko webgunearen araubidea:

Nafarroako Parlamentuaren webgunean argitaratuko dira:

- Abian dauden lizitazioak.
- Kontratu-esleipenak, salbu eta zenbateko txikiko kontratuen araubide bereziari jarraiturik izapidetuak direnak.
- Kontratu luzatuak.
- Hiru hilean behin, 300 euro baino gehiagoko eta 15.000 euro baino gutxiagoko kontratu-esleipenak.
- Urtean behin, Nafarroako Parlamentuak izapideturiko esleipen-prozedura ezberdinen laburpen estatistikoa.

